

Gaur "Markina-Xemeingo ipuin zaharrak" DVDa aurkeztuko dute Uhagonen

Markineraz idatzitako herriko sei kontakizun batzen dira bertan irudiekin apainduta Iñigo Alberdi Markina-Xemein Markina-Xemeingo Euskara Zerbitzuak eta herri bibliotekak markineraz kontatutako herriko ipuinen DVDa aurkeztuko du gaur Uhagonen, 13:00etan. Euskara Zerbitzuak Labayrurekin batera William Rollo-ren 'The basque dialect of Marquina' liburuaren berrargitalpena aurkeztu zuen abenduaren batean. Bertan testu txikiak, herriaren deskribapenak, gertakizunak eta ipuin herrikoiak batzen ziren. Ipuinok markinarrek kontatutakoak dira eta bertoko euskaran jasota daudenez, Euskara Zerbitzuak DVD formatoan batzea erabaki du. Ipuin hauek, herriko pertsonaiak, agertzen diren lekuak galzorian zeuden eta herrian ez genituen erabiltzen gure umeei kontuak kontatzerakoan, diote sustatzaileek. Itzelezko altxorra genuen eta ez genuen erabiltzen. 'Markina-Xemeingo ipuin zaharrak' izeneko DVDan herriko sei ipuin batzen dira: 'Barroetako ortulaua', 'Lamiak', 'Euliski erraldoia', 'Laparramendi atsoa', 'Mari kobako' eta 'Alarabi, Erraldoiaren eta Gizon-jalearen ipuina'.

Narratzaileak kontatu ahala, Markina-Xemeingo irudiak erakusten dira. Herriko euskaran kontatuta daudenez, bizkaieraz eta markineraz idatzitako kuaderno bat ere erantsi zaio DVDari ulermen arazoak saihesteko. Sustatzaileek azaldu dutenez DVDa ez da umeei jartzeko pelikula bat bakarrik, nagusiok ere ipuinak ikasi eta ahozko transmisioa lantzeko tresna bat ere bada, gaineratu dute.